# ENTZUMENA

**1. entzungaia:**
Donostiako esoterismoaren eta terapia naturalen gaineko jardunaldietan hartu du parte Mikel Lizarralde mediumak. Berarekin eta Ilargiarekin arituko dira hizketan Euskadi Irratiko kazetariak. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, erantzun zuzena aukeratu. 0 zenbakia adibidea da.

*0.- Mikel Lizarraldek bere medium titulua...*

- *a. Donostiako Zientzia Intuitibo eta Terapeutikoen Institutuan lortu zuen.*
- *b. Telebistako saio ospetsuetara joanda lortu zuen.*
- *c. Nazioarteko eskola batean lortu zuen.*

1.- Mikelen ustez, zer ekarri du Anne Germain-ek bere lanbidera?
- a. Bezero gehiago.
- b. Seriotasuna eta errekonozimendua.
- c. Jainkoari eskerrak, martxa gehiago.

2.- Egunotan zer egingo du Mikel Lizarraldek?
- a. Bi hitzaldi-tailer eman eta zuzeneko bidentzia bat egingo du.
- b. Lan serioa eta profesionala.
- c. Bisitariak harira eraman.

3.- Normalean, hitzaldiak ematen dituztenean...
- a. Igarlea izatea show-arekin lotuta dagoela erakusten dute.
- b. Bizitzaren ondorengo bizitzaz aritzen dira, besteak beste.
- c. Parte hartzaileei errealitatea eta komunikazioa zer diren erakusten diete.

4.- Nola lortzen dute hori?
- a. Istorio inpaktanteak kontatuz.
- b. Espirituen mezuak emanez.
- c. Etorkizunari buruzko berriak eta abar adieraziz.

5.- Tarot-kartak irakurtzeaz gain, zer gehiago egiten du Ilargiak?
- a. Kirologia, eskuen lineak irakurtzen ditu.
- b. Maitasunean diruak duen garrantzia bezeroei azaltzen die.
- c. Langabetuak mahai inguruan biltzen ditu.

6.- Ilargiari zeri buruz galdetzen diote gehien azken aldi honetan?
- a. Krisiari buruz.
- b. Diruari buruz.
- c. Maitasunari eta lanari buruz.

7.- Ba al dago ezberdintasunik igarle eta tarotisten artean?
- a. Bai, igarkizunak egiteko tarotistek instrumentu bat erabiltzen dute, ezinbestez.
- b. Bai, benetako igarleak ez du ezer behar etorkizuna asmatzeko.
- c. Bai, igarleek eskuko marrak baino ez dituzte irakurtzen.

8.- Bezeroari albiste txarren edo latzen bat eman behar diotenean, nola jokatzen dute?
- a. Besterik gabe, ikusten dutena esaten diote.
- b. Esateko modua zaintzen dute.
- c. Ez diote esaten, profesionalak baitira.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0.- C | 1.- | 2.- | 3.- | 4.- | 5.- | 6.- | 7.- | 8.- |